

EUSKAL ZINEMAREN GALA

Victoria Eugenia antzokia sariz... eta dibertimenduz bete zen atzo

IRATXE MARTÍNEZ

Zinemaldiaren erdira heldu gara eta horrek gauza bat esan nahi du: sariak usaindu daitezke giroan. Eta, batez ere, Victoria Eugenia antzokian. Euskal Zinemaren Gala ospatu zen atzo eta sariak banatuz gain, aurkezleekin jolasten eman genuen denbora luzea.

Gaua Olatz eta Iñaki Salvadorren emanaldi zirraragarri batekin hasi zen. Ondoren, Aitziber Garmendia eta Jon Plazaola eszenatokira atera ziren gala aurkeztera. Guztien harridurarako, Aitziber publikoari ongietorria eman zion hula hoop-arekin dantza egiteari utzi gabe. Bere aurkezle kideak ez zuen hula hoop-a mugitzea lortu. "Zergatik?", galdetzen zuen Plazaolak (eta antzokiko publiko guztia). Ba, Aitziberren arabera, iaz galako gauzarik onena jokoak izan zirela esan zutelako eta, beraz, jolas ugariz beteta etorri ziren atzo! Gainera, gauak berrikuntza bat izan zuen iazkoarekin

alderatuta, aurten sari berri bat banatu baita: EITB Egile Berriak Saria. Aurkezleek esan zuten bezala, "urte urte nabarmena da euskal zinemaren osasun ona. Euskal zinemak muskulua atera du!".

Zinemaldiko galarik dibertigarrienetako batean, hiru sari banatu ziren guztira. Lehenengoa, Euskal Gidoileen Elkarte Saria eman zioten Isabel Herguerari bere *El sueño de la sultana* filmagatik, Sail Ofizialean parte hartzen duena. Saria, Aitor Amezaga kompositoreak eta Aitor Enerizek (Euskal Herriko Gidoigileen Elkarte Profesionaleko presidentea) banatu zuten.

Bigarren saria, EITB Egile Berriak Saria, lehen aldiz banatu zen atzo. Nerea Mazo aktoreak banatu zuen saria, aurkezleekin jolastu eta bere hurrengo telesaila, *Itxaso*, aurkeztu ondoren, eta Estibaliz Urresolarentzat joan zen *20.000 especies de abejas* filmagatik.



Paco Sagarzazu Zinemira Saria jaso zuen



Isabel Herguera bere sariarekin.



Lehenengo egile berrientzako saria Estibaliz Urresola jaso zuen.

Azkenengo saria, Zinemira saria izan zen. Ane Gabarainek banatu zuen eta Paco Sagarzazuri eman zioten. Victoria Eugenia antzokiko ikusleek Sagarzazuren omenezko bideo bilduma bat ikusteko aukera izan zuten. Bideoa bukatzean, Sagarzazuk

eskerrak eman zituen eta bere gurasoei eskaini zien saria. Bere hitzaldian Carmelo Moreno eta Felipe Alberdi bere lagunak ere gogoratu zituen.

Gauan zehar, galan ikusi genituen jokoak euskal filmen izenburuak asmatzeko frogak ziren eta, besteak

beste, *Cinco lobitos* (2022) edo *Prioridades* (2023) aipatu zituzten.

Atzo argi geratu zen Euskal Herrian umore handia dugula, zinema egiteko irrikitan gaudela eta zinema industriaren erreferente bikaina izateko bidean gaudela.

Dolby Atmos

Lider mundial en audio inmersivo

Del estudio a la gran pantalla, Dolby Atmos ofrece una experiencia inmersiva que suena exactamente como fue concebida.



7900+

Pantallas Dolby Atmos instaladas o confirmadas en 105 países



2950+

Películas confirmadas o estrenadas



80+

Multicines donde cada sala está equipada con Dolby Atmos



280+

Estudios de mezcla



Colaborador de SSIFF
WIP LATAM